Sin./Fdo.: JOSEBA MIKEL GARCIA PEREZ 2023-09-07
IDAZKARITZA NAGUSIAREN UNITATEKO BURUA
JEFE/A UNIDAD DE SECRETARÍA GENERAL

Sin./Fdo.: AGER IZAGIRRE LOROÑO - 2023-09-07
FORU DIPUTATUA ETA IDAZKARIA
DIPUTADO/A FORAL Y SECRETARIO/A

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

**AGER IZAGIRRE LOROÑO, HERRI ADMINISTRAZIORAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO FORU DIPUTATU ETA KONTSEILUKO IDAZKARI JAUNAK.**

**HAUXE EGIAZTATZEN DU:**

Bizkaiko Foru Aldundiak, **bi mila eta hogeita hiruko irailaren zazpian** egindako bilkura-saioan, erabaki hau hartu zuela, besteak beste: **Eguneko Aztergaien Zerrendako 25. gaia.**

**"25.- ERABAKI PROPOSAMENA, ZERTARAKO ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA GAUDE, DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO ELKARTEAREN ARTEAN SINATUTAKO LANKIDETZA HITZARMENA AZKENTZEKO ETA SUNTSIARAZTEKO, ALDE BIEK HALA ADOSTUTA. HITZARMENAREN XEDEA DA DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEI EGUNEKO ARRETA ZERBITZUA EMATEA MONTE IKEA EGUNEKO ZENTROAN.**

**Lehenengoa**.- Bizkaiko Foru Aldundiaren eta **GAUDE**, Desgaitasuna duten Pertsonen aldeko Elkartearen artean sinatutako lankidetza hitzarmena azkentzea eta suntsiaraztea, **2023ko maiatzaren 31tik** aurrera eta idazki honetan jasotako baldintzetan, alde biek hala adostuta. Hitzarmenaren xedea da desgaitasuna duten pertsonei eguneko arreta zerbitzua ematea **"Monte Ikea eguneko zentroan**".

**Bigarrena**.- Gizarte Ekintzako foru diputatuari ahalmena ematea aipaturiko hitzarmena azkentzeko akordioa sina dezan. Testua, jasota gera dadin, bilkura-saio honen aktari gehitu zaio 14. eranskin moduan.

**Hirugarrena**.- Erabaki hau interesdunei jakinaraztea, legezko eran".

Eta jasota gera dadin, eta Akta oraindik ez dela onetsi ohartarazita, idazki hau idazten da, Bilbon, sinatzen den egunean.

**AGER IZAGIRRE LOROÑO, DIPUTADO FORAL DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y RELACIONES INSTITUCIONALES Y SECRETARIO DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA.**

**CERTIFICA:**

Que la Diputación Foral de Bizkaia, en sesión celebrada el día **siete de septiembre de dos mil veintitrés**, adoptó entre otros, el siguiente Acuerdo: **Asunto nº 25 del Orden del Día.**

**"25º.- PROPUESTA DE ACUERDO PARA LA EXTINCIÓN Y RESOLUCIÓN, POR MUTUO ACUERDO, DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN SUSCRITO ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y LA ENTIDAD ASOCIACIÓN GAUDE EN FAVOR DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD, DESTINADO A LA PRESTACIÓN DE UN SERVICIO DE ATENCIÓN DIURNA EN EL CENTRO DE DÍA MONTE IKEA.**

**Primero**.- Dar por extinguido y resolver, por mutuo acuerdo y con efectos retroactivos, a partir del **31 de mayo de 2023** y en los términos previstos en el cuerpo de este escrito, el Convenio de Colaboración suscrito entre la Diputación Foral de Bizkaia y la **ASOCIACIÓN GAUDE** en favor de personas con discapacidad destinado a la prestación de un servicio de atención diurna en el **"Centro de Día Monte Ikea".**

**Segundo**.- Facultar a la Diputada Foral del Departamento de Acción Social para que proceda a la firma del Acuerdo de extinción, que para constancia, se une al Acta de la presente sesión como Anexo nº 14.

**Tercero**.- Notificar el presente acuerdo, en legal forma, a las partes interesadas".

Y para que conste, y con la advertencia de que el Acta todavía no ha sido aprobada, se expide la presente, en Bilbao, a la fecha de la firma.

***ALDERATURIK ETA ADOS. VISTO BUENO Y CONFORME***

Idazkaritza orokorreko unitateko burua. Jefatura de la Unidad de Secretaria General. JOSEBA MIKEL GARCÍA PÉREZ.

***ZIURTATU. CERTIFICA*** Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu eta Idazkari jaunak. El diputado foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales y Secretario AGER IZAGIRRE LOROÑO

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3G8D-JI9B-8ZOR-1170
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

herri administraziorako eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales

idazkaritza orokorra / secretaría general

HITZARMEN HAU AZKENTZEA, ALDERDIEN ADOSTASUNEZ: BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-GIZARTE-EKINTZA SAILAREN ETA DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO GAUDE ELKARTEAREN ARTEAN HITZARMENA, "MONTE IKEA EGUNEKO ZENTRO"AN EGUNEKO ARRETA ZERBITZUA EGITEKO.

Bilbon,

BILDU DIRA

ALDE BATETIK, Amaia Antxustegi Ziarda andrea, Gizarte Ekintza Saileko foru-diputatua, Bizkaiko Foru Aldundiaren (IFZ: P4800000D) izenean eta haren ordezkari gisa, eta
BESTETIK, Ander Aurre Urzaa jauna, DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO GAUDE ELKARTEAREN izenean eta hura ordezkatuz (IFZ: G48130793).

Alderdiek agiri hau formalizatzeko behar den gaitasun juridikoa aintzatesten diote elkarri eta, ados jarrita, aritzeko eman zaien ordezkaritza onartu diote elkarri.

ADIERAZI DUTE

Bizkaiko Foru Aldundiak, Gobernu Kontseiluaren 2021ko uztailaren 20ko Erabakiaren bidez, erabaki zuen lankidetza-hitzarmena sinatzea DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO GAUDE entitatearekin, "MONTE IKEA EGUNEKO ZENTRO"an eguneko arreta zerbitzua egiteko Hitzarmen horren azken luzapena abenduaren 4ko 67845/2022 Foru Aginduaren bidez onartu zen eta.

Hala ere, hitzarmenaren alderdi sinatzaileek beharrezkotzat jo dute testu berri bat prestatzea, benetako beharrizanetara egokitu eta 2023ko ekainaren 1ean indarrean jarriko dena, atzeraeraginezko ondorioekin.

Aurrekontu-kudeaketarako, beharrezkoa da hitzarmen berria sinatu aurretik indarrean dagoena suntsiaraztea, alderdi biek adostuta. Hala, amaitutzat joko da legezko ondorio

EXTINCIÓN POR ACUERDO UNÁNIME DE LAS PARTES DEL CONVENIO DE COLABORACION SUSCRITO ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA-DEPARTAMENTO DE ACCIÓN SOCIAL Y LA ASOCIACIÓN GAUDE EN FAVOR DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD PARA LA PRESTACION DE UN SERVICIO DE ATENCIÓN DIURNA EN EL "CENTRO DE DÍA MONTE IKEA".

En Bilbao, a

SE REÚNEN

DE UNA PARTE, Dña. Amaia Antxustegi Ziarda, Diputada Foral del Departamento de Acción Social, en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia (NIF: P4800000D), y
DE OTRA PARTE, D. Ander Aurre Urzaa en nombre y representación de la ASOCIACIÓN GAUDE EN FAVOR DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD con el número de NIF G48130793.

Ambas partes se reconocen mutuamente la capacidad jurídica necesaria para la formalización del presente documento y aceptándose recíprocamente las representaciones a cuyo tenor actúan, de común acuerdo.

MANIFIESTAN

La Diputación Foral de Bizkaia, mediante Acuerdo de Consejo de Gobierno de 20 de julio de 2021 acordó suscribir el Convenio de Colaboración con la entidad ASOCIACIÓN GAUDE EN FAVOR DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD destinado a la prestación de un servicio de atención diurna en el "CENTRO DE DÍA MONTE IKEA", cuya última prórroga se aprobó por Orden foral 67845/2022, de 4 de diciembre.

No obstante, las partes firmantes del citado convenio han considerado necesario disponer de un nuevo texto que se ajuste a sus necesidades reales y que entraría en vigor el 1 de junio de 2023, con efectos retroactivos.

Cuestiones de gestión presupuestaria hacen necesario, por tanto, con anterioridad a la firma del nuevo convenio, resolver el vigente, por acuerdo entre las partes, de tal forma que quede

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3G8D-JI9B-8ZOR-1170
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

guztietarako, eta alderdiek ez dute elkarrekiko betebeharrik izango, ezertan eragotzi gabe hitzarmen berria onartzearen ondorioz hartzen diren betebeharrak. Aukera hori azkendu beharreko hitzarmenaren hamabosgarren klausulan jasota dago.

finalizado a todos los efectos legales y las partes queden liberadas de cualquier obligación recíproca que dimane del mismo, sin perjuicio de las que se contraigan con la posterior aprobación del nuevo Convenio. Tal posibilidad se encuentra recogida en la cláusula Decimoquinta del convenio a extinguir.

Horregatik guztiagatik, Bizkaiko Foru Aldundiak, alde batetik, eta, bestetik, DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO GAUDE ELKARTEAK.

Por todo lo cual, Diputación Foral de Bizkaia, por una parte, y, por otra, la ASOCIACIÓN GAUDE EN FAVOR DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD.

ERABAKI DUTE

ACUERDAN

LEHENA.- Alderdien adostasunez, azkendutzat jotzea Bizkaiko Foru Aldundiaren eta DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO GAUDE ELKARTEAREN sinatutako lankidetza-hitzarmena “MONTE IKEA EGUNEKO ZENTRO”an eguneko arreta zerbitzua egiteko.

PRIMERO.- Dar por extinguido, por acuerdo de las partes, el Convenio de colaboración suscrito entre la Diputación Foral de Bizkaia y LA ASOCIACIÓN GAUDE EN FAVOR DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD para la prestación de un servicio de atención diurna en el “CENTRO DE DÍA MONTE IKEA”.

BIGARRENA.- Hitzarmenak ez du ondorerik izango 2023ko maiatzaren 31etik aurrera eta ondore guztietarako amaituta geldituko da. Era berean, data horretatik aurrera alderdiak libre geratuko dira hitzarmen honen ondorioz sortzen diren betebeharretatik eta ez dute ezer erreklamatuko.

SEGUNDO.- El convenio deja de tener efectos a partir del 31 de mayo de 2023, quedando totalmente finalizado a todos los efectos legales y las partes quedan liberadas de cualquier obligación recíproca que dimane del mencionado convenio desde la citada fecha y sin que nada más tengan que reclamar al mismo, dándose por saldado y finiquitado.

Adostasunaren adierazgarri eta fede onez hitzartutakoa betetzeko, bi alderdiek ale hau sinatzen dute.

En prueba de conformidad y para cumplir lo pactado de buena fe, se firma por ambas partes el presente ejemplar.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3G8D-JI9B-8ZOR-1170
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
herri administrazioarako eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general